



## SARI PREZIATUAREN BILA

Tolosa acoge el 43. Certamen Coral y el Grand Prix,  
con la participación de Landarbaso y KUP Taldea

**kantuz 95**

**Argitalpena/Edita:**

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte  
/Confederación de Coros del País Vasco

**Helbidea / Dirección:**

234 postakutxatila. Plaza Zaharra, 1-2  
solairua (Idiákez Jauregia). 20400 Tolosa  
(Gipuzkoa).

**Telefonoa / Teléfono:**

943 670 013

**E-posta/E-mail:** info@korlakeae.com

**Web:** www.korlakeae.com

**Babeslea/Patrocina:**

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila,  
Kultura Ministerioa/Consejería de  
Cultura del Gobierno Vasco, Ministerio  
de Cultura

**Koordinatzailea / Coordinadora:**

Nerea Pikabea Amundarain

**Diseinua / Diseño:**

Iñigo Puerta

**Kolaboratzaileak / Colaboradores:**

Maria Agirre Unzueta, Enrique Azurza,  
Patxi Belly, CIT, Donostiako Musika  
Hamabostaldia, Annie Dumay  
(Iparralde Kantuz argazkiak), Amaia  
Garmendia, IFCM, Dabid Jimenez  
Aldalur (zuzendaritza akademia,  
pedagogia ikastaroa, Iñaki Tolaretxipi  
eta Gabriel Baltes argazkiak), Dominique  
Lambert, World Symposium on Choral  
Music.

**Frantseseko itzultzailea /**

**Traductrice:**

Dominique Lambert

**Beste itzulpenak/**

**Otras traducciones:**

Maria Agirre Unzueta, Amaia  
Garmendia.



**aurkibidea sumario sommaire**

**3-Editoriala**

**4-Kantika 10 urte**

**5-Laino Eresi 50 urte**

**6-Bilboko Koralkartearen-Sociedad**

**Coral de Bilbao 125 urte**

**8-Aita Garayoa 25 urte**

**9-Loinatz abesbatza 25 urte**

**10-Zarautz Txiki 25 urte**

**11-Beheko Plaza Jaenen/ Beheko Plaza**

**en Jaén**

**12-Xatz Eskifaia 25 urte**

**13-Ganbara y Gabero: pop-rock**

**doinuak/Ganbara eta Gabero: melodías**

**de pop-rock**

**14-Hodei Alemaniako Eurotreff**

**jaialdian/Hodei en el festival Eurotreff**

**de Alemania**

**15-Landarbaso 20 urte**

**16-Gazte Koruen IV. Tailerra / IV. Taller**

**de Coros Juveniles**

**17-Theodora Pavlovitchekin ikastaroa +**

**Vocalia Tarragonan / Curso con**

**Theodora Pavlovitch + Vocalia en**

**Tarragona**

**18-Entzun 30 urte/ Les 30 ans d'Entzun**

**19-Iparralde Kantuz + Euskal Herria**

**Cantat**

**20-Laburrak/Breves**

**21-Pedagogia eta Haur Abesbatzen**

**Dinamizazioko ikastaroa / Curso de**

**Pedagogía y Dinamización de Coros**

**Infantiles**

**22-Abesbatzen Zuzendaritza Akademia**

**+ Kantaldi irekia / Academia de**

**Dirección Coral + Canto abierto**

**23-27-Tolosako 43. Abesbatza**

**Lehiaketa + Iñaki Tolaretxipi**

**elkarrizketa / 43. Certamen Coral de**

**Tolosa + Entrevista Iñaki Tolaretxipi**

**28-29-Grand Prix Tolosan +**

**Elkarrizketa/Entrevista Gabriel Baltes y**

**Aitor Imaz**

**30-Hego Lapurdiko abesbatzak**

**sorkuntzan / Chœurs du Sud Pays**

**Basque en création**

**31-IFCMren batzar nagusia / Asamblea**

**general de IFCM**

**32-KEA Ahots Taldea Nazioarteko**

**Sinposioan / Grupo Vocal KEA en el**

**Seminario Internacional**

**34-Euskal abesbatzak Hamabostaldian /**

**Coros vascos en la Quincena**

**36-Partituren estreinaldiak / Estreno de**

**partituras**

**38-Editorialetako albisteak / Novedades**

**editoriales**



**EDITORIALA**

Kantuzeko lagunok,

Kantuzen azken zenbakia aurkezten dizuegu, eta udazkenerako ekitaldien berri ematen dizuegu bertan: Gasteizen urriaren 9tik 11ra bitartean Ester Bonalekin egin den abesbatzen pedagogia ikastaroa eta abenduan egingo den Kantaldi Irekia. Gainera, geure federazioen jardueren berri ematen dizuegu, asko baitira urte sasoi honetan. Horien artean Iparralde Kantuz nabarmendu behar dugu; Urruñan egingo da hil honen 23an. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako jarduerak ere bai: Gazte Koruen Tailerra batetik, eta Udazkeneko Ikastaroa bestetik, azaroaren 5ean eta 6an Theodora Pavlovitchek Tolosan eskainiko duena.

Hainbat abesbatza urteurrena ospatzen ari dira eta horren berri ere ematen dizuegu, tartean Bilboko Koralkartearena, 125 urte betetzen baititu aurten. Koralkartearen ospakizunetako bat ere nabarmendu nahi genuke, jende askoren intereseko delakoan: Eric Whitacre kompositore estatubatuar ezaguna gure herrian izango da lehen aldiz eta tailer bat egingo da berarekin.

Beste behin, Tolosako Jaialdia EAEko abeslari askoren topagunea izango da. Gainera, interesa piztuko du Kantu Koralaren Europako Sari Nagusiak; aurten Tolosan egingo da azaroaren 5ean. Landarbaso Abesbatzak parte hartuko du urteroko lehiaketan, eta KUP Taldea izango da Sari nagusian izango dugun ordezkaria. Zorte onena opa diegu bi abesbatzei euren saioetan.

Hori guztia zuen interesekoa izango delakoan, eta datozen hilabeteetan elkar topo egingo dugulakoan,

Agurrik beroena,

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte

**EDITORIAL**

Amigas y amigos de Kantuz,

Os presentamos el último número de Kantuz, en el que os damos cuenta de las actividades que hemos preparado para este otoño: el curso de pedagogía coral con Ester Bonal, del 9 al 11 de octubre en Gasteiz, y el Canto Abierto en diciembre. Además, las actividades de nuestras federaciones, que son muchas en esta época del año. Entre ellas destacamos el Iparralde Kantuz, en Urruñan el 23 de este mes, el habitual Taller de Coros Juveniles que organiza GAF y el Curso de Otoño, en esta ocasión, a cargo de Teodora Pavlovitch, en Tolosa el 5 y 6 de Noviembre.

Informamos también de los aniversarios de un buen número de coros. Entre ellos destaca el de la Sociedad Coral de Bilbao, que celebra 125 años. Entre los actos de celebración, queremos señalar por su interés general, el taller con el famoso compositor estadounidense Eric Whitacre, por primera vez en nuestro país.

Un año más, el Festival de Tolosa será punto de reunión para muchos coralistas de EAE. Este año, con el aliciente añadido del Gran Premio Europeo de Canto Coral, que vuelve a celebrarse en Tolosa, el 5 de Noviembre. Landarbaso Abesbatza participará en el certamen anual, y KUP Taldea nos representará en el Gran Premio. A ambos coros les deseamos mucha suerte en sus actuaciones.

Esperamos que todo ello sea de vuestro interés, y que nos podamos encontrar a lo largo de estos meses,

Un cordial saludo,

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte

Jar ezazu iragarkia **Kantuzen!**  
¡Anúnciese en **Kantuz!**  
Fais ta pub sur **Kantuz!**

info@korlakeae.com



## Kantika, hamar urte etenik gabe

**Hamargarren urteurrena ospatzeko helburuz, Leioa Kantika Koralak kontzertua eskaini zuen joan den ekainaren 18an Leioan. Gainera, Frantziako Proventzan uztailean egindako jaialdian izan ziren. Egunotan Italia eta Esloveniara bidean dira, jaialdi batean parte hartzeko.**

Basilio Astulezen kantariak

Triesten, Koperren eta Gorizian parte hartuko dute, beraz, Italian eta Eslovenian. Abesbatzen jaialdi garrantzitsu batek gonbidatu ditu, urriaren 12tik 16ra bitartean.

Azaroan, 20tik 26ra, berriz, Bilbon eta Iruñean izango dira, G. Pucciniaren *Tosca* opera kantatzen; AGAOk (Gayarre Operaren Lagunak Elkarte) antolatuko dituen bi emanalditan parte hartuko dute.

Abenduaren 3tik 11ra, Alsaziara eta Estrasburgora joango dira federazio frantziarraren Noelis zikloan esku hartzeko. Gainera, Gabon giroko hainbat kontzertu eskainiko dituzte Euskal Herrian.

### Hamar urteak

Bizkaiko abesbatzak herriko Joan Deunaren jaiak aprobetxatu zituen hamargarren urteurrena ospatzeko.

Ekainaren 18an Joan Deunaren elizan eskaintako kontzertuan lagun izan zituzten San Juan Bautistako kantari gazteak, eta baita Kantoriakoak ere. *Goiztirian*, *Ave Maris Stella* eta *Hegan* aurkeztu zituzten, guztiak ere Xabier Sarasolak, Josu Elberdinek eta Javi Bustok konposatutako lanak.

Gainera, Juventuts Musicals de Catalunya federazioak gonbidatuta Tortosara bidaiatu zuten, eta kontzertua eskaini zuten hirian ekainaren 25ean.

Hori guztiak gutxi ez, eta uztailean "A Coeur Joie" Frantziako Abesbatzen Federazioak antolatutako XIX. Choeurs Laureats jaialdian parte hartu zuten. Jaialdi hori urtero egiten da, eta azkenaldian nazioartean saritutako abesbatzak gonbidatzen dituzte. Hain zuzen ere, 2009an Arezzen lehen saria eta 2008an Tolosan bigarren saria eskuratzeagatik gonbidatu zuten Kantika. Bertan izan ziren Argentinako, Suediako eta Israelgo hiru abesbatza ere. Frantziako Proventzan bost kontzertu eskaini zituzten ekainaren 24tik 31ra bitartean; emanaldi jendetsuak izan ziren eta gainera kritika onak izan zituen.

### Info +

[www.conservatorioleioa.com/leioakantikakorala](http://www.conservatorioleioa.com/leioakantikakorala)



## Kantika, diez imparables años

**Leioa Kantika Korala ofreció un concierto en Leioa el pasado 18 de junio, para celebrar su décimo aniversario. En julio participaron en un festival de la Provenza francesa, y estos días Kantika se encuentra de camino a Italia y Eslovenia, donde participará en un festival.**

Los/as coralistas de Basilio Astulez actuarán en Trieste, Koper y Gorizia, en Italia y Eslovenia, invitadas para un importante festival coral. Será entre los días 12 y 16 de octubre.

En noviembre, los días 20 y 26, participarán en Bilbao y Pamplona en las dos representaciones que AGAO (Asociación Gayarre de Amigos de la Ópera) organizará de la ópera *Tosca* de G. Puccini.

Entre los días 3 y 11 de diciembre viajará a Alsacia y Estrasburgo para participar en el ciclo Noelies de la federación francesa, además de ofrecer varios conciertos de carácter navideño en Euskal Herria.

### Los diez años

La coral vizcaína aprovechó los días

anteriores a las fiestas de San Juan de la localidad para celebrar su décimo aniversario. En el concierto ofrecido el 18 de junio en la iglesia San Juan Bautista, les acompañaron los/as jóvenes cantores/as de San Juan Bautista y La Kantoria. Estrenaron *Goiztirian*, *Ave Maris Stella* y *Hegan*, obras escritas por Xabier Sarasola, Josu Elberdin y Javi Busto respectivamente.

Asimismo, Kantika viajó a Tortosa invitada por la federación Juventuts Musicals de Catalunya para ofrecer un concierto en la

ciudad el 25 de junio.

En julio, Kantika ha participado en el XIX. Festival des Choeurs Lauréats que organiza la federación coral francesa "A Coeur Joie". El festival, de carácter anual, selecciona agrupaciones premiadas internacionalmente recientemente. Kantika acudió invitada por su primer premio en Arezzo 2009 y su segundo premio en Tolosa 2008, junto a otras tres agrupaciones de Argentina, Suecia e Israel. Ofreció cinco conciertos en la Provenza francesa entre los días 24 y 31 de julio con gran éxito de crítica y público.

### Info +

[www.conservatorioleioa.com/leioakantikakorala](http://www.conservatorioleioa.com/leioakantikakorala)

## Laino Eresi, mende erdia

**Enkarterrietako abesbatza hau ospakizunetan murgilduta dago, sortu zeneko 50. urteurrena ospatzen ari baita aurten. Hori dela eta, aurtengo emanaldi guztiak bereziak izaten ari dira. Datorren arazoaren 5ean kontzertua eskainiko dute Zallan eta hori izango da, zalantzarik gabe, aurtengo kontzertu esanguratsua.**

**Enkarterrietako zortzi abesbatzak parte hartuko dute emanaldi horretan.**

Julio Lanuza gaur egungo zuzendariaren gidaritzapean kantatuko dute kontzertu horretan elkartuko diren 350 bat abeslarik. Laino Eresi abesbatzaren zuzendari izan direnei oroigarri bat –plaka bat- emango zaie. Oroigarria

banatuko zaie, baita ere, emanaldian parte hartuko duten abesbatzei eta 1961ean abesbatza sortu zenetik koruan abesten duten bost abeslariri.

Laino Eresi abesbatzak garai desberdinak bizi izan ditu sortu zenetik. 1960an hasi zen kantuan ahots lodien abesbatza gisa, eta 1961etik aurrera ahots zuriak sartzen joan ziren.

### Ibilbide luzea

Abesbatza asko ibili da euskal lurraldean barrena bere historia luzean. Sari garrantzitsu asko lortu ditu eta, lehiaketa eta jaialdi ugarietan parte hartu du.

Aita Otañoren omenaldi kontzertuan parte hartu zuen; Erreterian egin zen emanaldi hori bere jaiotzaren mendeurrenean.

Hirugarren saria eskuratu zuen



## Laino Eresi, medio siglo

**Este coro de las Encartaciones está de celebración, ya que este año cumple su 50 aniversario. Por ello, todos los actos que están realizando este año tienen carácter especial. Sin duda, una de las actuaciones más importantes lo celebrarán el día 5 de noviembre en Zalla, donde les acompañarán ocho coros de las Encartaciones.**

En ese concierto dirigido por el actual director, Julio Lanuza, se

reunirán alrededor de 350 cantores. Se entregará una placa conmemorativa a los directores que han pasado por la coral Laino Eresi, a las corales acompañantes y también a cinco miembros de la coral que siguen como coralistas desde que se fundó en 1961.

La Coral Laino Eresi ha vivido diversas etapas desde su fundación. Comenzó su actividad en 1960 como coro de voces graves, y a partir de 1961, se fueron

incorporando también las voces blancas.

### Largo recorrido

La coral a lo largo de su ya larga historia ha recorrido gran parte de la geografía vasca, obteniendo numerosos premios y participando en gran cantidad de festivales y concursos.

Participó en el concierto de homenaje al Padre Otaño, celebrado en Rentería por motivo del centenario de su nacimiento.

Obtuvo el tercer premio en el Festival Canción Aragonesa (1981 y 1982), la "Lira de Oro" y la "Lira de Plata" en el Festival de la Canción

"Canción Aragonesa" jaialdian (1981 eta 1982), "Urrezko Lira" eta "Zilarrezko Lira" "Canción Marinera" jaialdian (1981 eta 1982, hurrenez hurren), hirugarren saria Euskal Koru Musikaren Lehiaketan, 1981ean, eta lehen saria Arrigorriagako Eguberri Abestien Lehiaketan (1997).

Euren erreperterioan euskal musikagileen obrak nabarmendu behar dira, baina horrez gain, estatuko eta nazioarteko konpositoreen obrak ere aurki daitezke. 2005ean, Julio Lanuzak konposatutako *In Memoriam* obra estreinatu zuten. Lanuza beraren zuzendaritzapean kantatu zuten Zallako Zine Antzokian, Azkoaga Bandarekin batera. Poema sinfoniko bat da eta bi zati ditu: *Recordando* eta *Agnus Dei*.

1986an, 25. urteurrena ospatu zuten; kontzertu handi bat egin zuten eta abeslari ohiek ere abestu zuten orduan.

Begoñako Basilikako musika astean eta BAEk sustatutako udaberriko kontzertuetan parte hartzen jarraitzen dute; orain arte ez dute sekula hutsik egin.

Marinera (1981 y 1982, respectivamente), tercer premio en el Concurso de Música Coral Vasca de 1981 y primer premio en el Concurso de Villancicos de Arrigorriaga (1997).

Destacan en su repertorio obras de autores vascos, como del estado e internacionales. En 2005, estrenaron la obra musical *In Memoriam*, compuesta y dirigida por Julio Lanuza. Fue interpretada en el Zine Antzokia de Zalla conjuntamente con la Banda de Azkoaga. Se trata de un poema sinfónico en dos partes: *Recordando* y *Agnus Dei*.

En 1986 celebraron el 25 aniversario con un gran concierto en el que participaron también los ex coralistas.

Cabe destacar la perseverancia en sus actuaciones en la Basílica de Begoña en la semana musical y en los conciertos de primavera promovidos por la BAE, ya que hasta la fecha no han faltado nunca.



# Bilboko Koral Elkarteak 125 urte

## Bilboko Koral Elkarteak, Prokofieven *Alexander Nevsky* eskainiko du BBCren Orkestrak lagunduta

**Bilboko Koral Elkarteak 125. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil. Italian zehar azaroan egingo duten bira prestatzen ari dira kantari bilbotarrak, baina aurrez, Londresko BBCren Orkestrarekin batera Euskalduna jauregian kontzertua eskainiko dute. Urriren 21ean, Serguei Prokofieven *Alexander Nevsky* kantatuko dute.**

125. urteurreneko ospakizunetan buru-belarri murgilduta dabil Bilboko Koral Elkarteak, iaztik Julio Gergelyk zuzentzen duen taldea.

Azaroaren 24tik 27ra bitartean Italian bira egingo du Korallak, baina datorren urtean ere ospakizunekin jarraitzea da abesbatzaren helburua.

Baina hori baino lehenago, hitzordu garrantzitsua du Euskalduna jauregian, urriaren 21ean. Merkataritza Ganberak eta Deustuko Unibertsitateak ere 125. urteurrena dutela eta, guztiek bat egin eta kontzertu handi bat antolatu dute. Bilboko Koral Elkarteak Londresko BBCren Orkestrarekin batera eskainiko ditu Antonin Dvoraken *re minorreko 6. Sinfonia* eta Serguei Prokofiev konpositore errusiarraren

*Alexander Nevsky*. Jiri Belohlavek orkestra britainiarraren zuzendari titularrak gidatuko du kontzertua, eta Sandra McMaster mezzosopranoa bakarlari gisa arituko da. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza du kontzertuak, eta horri esker, munduko orkestra entzutetsuena Bilbon izango da.

BBC Symphony Orchestra 1930ean eratu zen, eta zuzendari titularrak Sir Colin Davis, Sir Malcolm Sargent, Rudolf Kempe eta Pierre Boulez izan dira, besteak beste. Orkestra horrek hasiera eta amaiera ematen dio urtero Londresko Proms jaialdi garrantzitsuari, udaro Royal Albert Hallen egiten dena.

**Eric Whitacren tailerra** Korallak prestatutako egitarauaren barruan, baina, Eric Whitacre

musikagileak Bilboko Alondegian eskainiko duen tailerra aipatu behar da. Azaroaren 12tik 13ra bitartean izango da hori. Eric Whitacre konpositore estatubatuarra Renon jaio zen 1970ean. Abesbatzen munduan gehien kantatzen diren obrak Whitacrek sortuak dira. Hark

egindako musika abesbatzen lehiaketa garrantzitsuetan entzuten da.

Koru lengoaia berezia eta erakargarria du, baina horretaz gain, teknologia berriek eta informazio sareek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzen daki. Horren adibide, *Lux Aurumque* obrarekin sortu zuen "abesbatza birtuala". Whitacrek munduko 12 tokitako kantarien grabazioak jaso zituen ordenagailuko web kameraren bitartez. Jarraian



editatu egin zituen eta argitaratu Youtube sarean, benetako abesbatza baten grabazioa bailitzan. Lehenengo bertsio horren ondoren *Sleep* obra etorri zen, baina azken horretan 53 herrialdetako 2.000 bideo baino gehiago jaso zituen.

Lan-jardunaldi horien helburua, Whitacrerena obra abestea eta ikertzea da. Whitacre bera arituko da Kontserbatorioko koruarekin, Euskeriarekin eta Bilboko Koral Elkarteak ahots nahasien

abesbatzarekin lanean. Jardunaldiak bukaera emateko, gainera, azaroaren 11n konpositoreak zuzendutako kontzertua izango da, Bilboko Alondegiko atarian. Eta jarraian, hurrengo asteburuan, estatuko abesbatzei zuzendutako tailer irekia egingo da. Era horretan, sortzailearen eskutik ezagutu eta landu ahal izango dute haren obra.

**Info +**  
[www.coraldebilbao.com](http://www.coraldebilbao.com)

## 125 años de música coral en Bilbao

### La Sociedad Coral de Bilbao interpretará *Alexander Nevsky* de Prokofiev junto con la Orquesta de la BBC

La Sociedad coral de Bilbao está inmersa en la celebración del 125 aniversario de su fundación. Los cantores bilbaínos están preparando una gira que realizarán en noviembre por Italia, pero antes se preparan para el concierto que ofrecerán en el Palacio Euskalduna de Bilbao junto con la Orquesta de la BBC. El día 21 de octubre sonarán las notas de *Alexander Nevsky* del ruso Serguei Prokofiev.

La Sociedad Coral de Bilbao dirigida desde el año pasado por Julio Gergely, sigue con sus actos conmemorativos del 125 aniversario. Entre los días 24 y 27 de noviembre, la formación bilbaína actuará en varias ciudades italianas. La Coral tiene previsto continuar su celebración durante el 2012.

Antes le espera un gran acontecimiento el 21 de octubre en el Palacio Euskalduna. La Cámara de Comercio y la Universidad de Deusto que también conmemoran

el 125 aniversario de su fundación se han sumado a este evento. Han organizado de manera conjunta un gran concierto: La Sociedad Coral de Bilbao interpretará junto a la Orquesta de la BBC de Londres la *sinfonía nº 6 en re menor* del compositor checo Antonin Dvorak y *Alexander Nevsky* del compositor ruso Serguei Prokofiev. El titular de la orquesta británica, Jiri Belohlavek dirigirá este programa que contará con la mezzosoprano Sandra Mc Master como solista. El concierto cuenta con el patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia que ha hecho posible que una de las más prestigiosas orquestas del mundo acuda por primera vez a Bilbao.

La BBC Symphony Orchestra se fundó en 1930 y han sido directores titulares de la misma Sir Colin Davis, Sir Malcolm Sargent, Rudolf Kempe y Pierre Boulez, entre otros. Esta orquesta inaugura y clausura todos los años el prestigioso festival de verano de los Proms de Londres que se



celebra en el Royal Albert Hall.

### Taller de Eric Whitacre

Otro de los grandes eventos programados por la Coral será el Taller coral que Eric Whitacre ofrecerá en la Alhóndiga de Bilbao el fin de semana del 12 y 13 de noviembre. Eric Whitacre es un compositor estadounidense nacido en Reno en 1970. Actualmente es uno de los

compositores más interpretados en el ámbito coral en todo el mundo y sus obras forman parte del programa de innumerables coros. Su música se interpreta con asiduidad en los concursos corales más prestigiosos.

A su atractivo e inconfundible lenguaje coral hay que añadirle el interés que demuestra por desarrollar las posibilidades que brindan las nuevas tecnologías y


las redes de la información. En este sentido, la popularidad de Eric Whitacre aumentó cuando creó la primera versión del llamado "Coro Virtual" con su obra *Lux Aurumque*, una iniciativa que recogía las grabaciones de cantores de 12 países a través de la cámara web de sus ordenadores, para su posterior edición y publicación en Youtube como si de la grabación de un coro real se tratara. A esta

primera versión le sucedería la segunda con su obra *Sleep*, pero en este caso la respuesta llegó en forma de más de 2.000 vídeos de cantores de 53 países.

El objetivo de estas jornadas de trabajo es el de interpretar y explorar la obra de Whitacre, con los coros del Conservatorio, Euskaria y Mixto de la Sociedad Coral de Bilbao. Estas jornadas finalizarán con un concierto

dirigido por el propio compositor el viernes 11 de noviembre en el atrio de la Alhóndiga de Bilbao. Posteriormente y durante el fin de semana se celebrará un taller abierto a los coralistas de otros coros de todo el estado, para así poder trabajar y conocer la obra por medio de su creador.

**Info +**  
[www.coraldebilbao.com](http://www.coraldebilbao.com)



# Aita Garayoaren zilarrezko ezteiak

**Donostiako Aita Garayoa Abesbatza 25. urteurrena ospatzen ari da aurten. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Ekainaren amaieran, gainera, Salamancara eta Portugalera**

**bidaiara egin eta zenbait kontzertu eskaini zituzten.**

Salamancan, Purísima Elizan egindako meza nagusian abestu zuten. Aldareko sakramentua amaitutakoan, abesbatzako kideak Salamancako kasinora hurbildu

eta kontzertua eskaini zuten. Abesti ugari kantatu zituzten. Lisboan, bestalde, Belemgo Jeronimos monasterioaren kupula azpian abestu zuten.

Udaberrian, abesbatzak urteurrenko diskoa grabatu zuen. Azken 25 urteetan abesbatzak osatu duen errepertorioa kantuak biltzen ditu diskoak.

## Jarraitzaile sutsuak

Duela hogeita bost urte, San Ignacio eskolaniako ume kantarien jarraitzaile sutsuenak ziren haien

gurasoak. Eskolako jaietan eskaintzen zituzten kontzertuetara kale egin gabe joaten ziren gurasoak. Garai hartan, Pablo Garayoa jesuita arduratzen zen musika arloaz. Hori dela eta, haren omenez hartu zuen izena abesbatzak.

Lehenengo zuzendaria Jose Antonio Sainz Alfaro izan zen. Gaur egun, Iñaki Cárcamo Garmendia donostiarrak zuzentzen du 35 kantariz osatutako taldea.

Errepertorioan estilo desberdineko ehun kantu baino gehiago dituzte. Hasi XVI. mendeko eta ondorengo polifoniatik, euskal kanta herriko nahiz atzerrikoetara. Zarzuelak, filmetako abestiak, eta beste hainbat esparrutakoak ere bere egin dituzte.

Abesbatzak hainbat kontzertu eskaini izan ditu, eta baita sariak eskuratu ere. Esaterako, lehen saria eta Urrezko Lira eskuratu zituzten Kantabriako San Vicente de la Barquerako XXIV. Cancion Marinera Lehiaketan. Baita lehen saria eta garaikur berezia ere Errioxan, Autol herrian egindako Abesbatzen V. Lehiaketan.

### Info +

<http://garayoa.musikabi.com>



# Bodas de plata de Aita Garayoa

**La Coral Aita Garayoa de Donostia celebra este año su veinticinco aniversario. Para ello, han organizado una serie de actos, y a finales de junio realizaron un viaje a Salamanca y a Portugal, donde ofrecieron varios conciertos.**

En Salamanca cantaron durante la misa mayor que se celebró en la Iglesia de la Purísima. Al finalizar

la eucaristía, los coralistas se dirigieron al Casino de Salamanca para ofrecer un amplio concierto, donde interpretaron un variado repertorio. En Lisboa cantaron bajo la cúpula del Monasterio de los Jerónimos en Belem.

Durante la primavera, el coro grabó un disco conmemorativo con algunas de las canciones y piezas que a lo largo de estos veinticinco

años han formado parte del repertorio del coro.

## Ardientes seguidores

Hace 25 años los niños cantores de la escolanía del colegio San Ignacio contaban entre sus más ardientes seguidores a sus padres y madres en cada uno de los conciertos que ofrecían en las fiestas colegiales. En aquel entonces se ocupaba de la corriente musical de los alumnos el padre jesuita Pablo Garayoa. El coro adoptó este nombre en su recuerdo.

El primer director fue José Antonio Sainz Alfaro. Actualmente, el coro formado por 35 coralistas lo dirige el donostiarra Iñaki Cárcamo

Garmendia.

Su repertorio abarca más de cien canciones de diversos estilos: desde polifonía del siglo XVI y siguientes, hasta el más variado folclore vasco y universal, así como coros de zarzuelas, temas de películas y otras variedades del canto coral.

Ha realizado numerosos conciertos y ha obtenido reconocimiento en diferentes certámenes entre los que cabe destacar: primer Premio y Lira de Oro en el XXIV Certamen de la Canción Marinera de San Vicente de la Barquera (Cantabria) y primer premio y trofeo especial en el V Concurso de Masas Corales de Autol (La Rioja), entre otros.

### Info +

<http://garayoa.musikabi.com>

# Loinatz abesbatza, mende laurdena

**Beasaingo Loinatz abesbatzak hogeita bost urteko ibilbidea egin du kantuan. Aurten egitarau berezia egiten ari dira eta bi hamarkada eta erdi honetan egindako lanaren ispilu izan nahi du. Aurtengo udan Parisen izan dira, eta orain kontzertuz beteriko udazkena zain dute Loinatz abesbatzako kantariak.**

Martxoan eskaini zuten Beasaingo parrokiaren 25. urteurrenako prestatutako kontzertu artean lehenengoa. Haydn-en *Kreazioa* obratik *Adan eta Earen duoa*, eta Gabriel Faureren *Cantique de Jean Racine* eta *Requiem* abestu zituzten, besteak beste. Xabier Sarasolak zuzendu zuen

eta Gerardo Rifon aritu zen organoa jotzen; Ana Otxoa sopranoa eta Jesus Garcia Arejula baritonoa izan ziren bakarlariak.

Maiatzean abeslari ohiak eta Musika Eskolako txikiak elkartu zituzten kontzertu jendetsu batean. Abuztuan Parisera bidaiatu dute, Madeleine eliza ezagunean kantatzeko.

Urriaren 8an Azkoitiko Organo Erromantikoaren Zikloan parte hartu zuen abesbatzak. 15ean, Tolosako Topaketetan abestu zuten. 22an, Javier Busto musikagilearen *Credo-Loinatz* obra estreinatuko dute parrokiaren.

Abenduan, emanaldi bat eskainiko dute parrokiaren Donostiako Barroko Taldearekin batera. Musika barrokoa izango

# Cuarto de siglo de Loinatz abesbatza

**Loinatz abesbatza de Beasain ha realizado un recorrido coral de veinticinco años. Este año están realizando una programación especial que pretende ser reflejo del trabajo de estas dos décadas y media. Tras su paso este verano por París, a los cantores de Loinatz abesbatza les espera un otoño lleno de conciertos.**

En marzo ofrecieron el primer concierto de los programados por el 25 aniversario en la parroquia de Beasain. Interpretaron, entre otros, *El dúo de Adán y Eva* de La Creación de Haydn, el *Cantique de Jean Racine* y el *Réquiem* de Gabriel

Fauré. Fue dirigido por Xabier Sarasola y Gerardo Rifón al órgano; los solistas fueron la soprano Ana Otxoa y el barítono Jesús García Aréjula.

En mayo reunieron en un concierto abarrotado a los ex del coro y a los peques de Musika Eskola. En agosto han viajado hasta París para cantar en la emblemática iglesia de la Madeleine.

El 8 de octubre la coral participó en Azkoitia en el Ciclo de Órgano Romántico. El día 15 cantaron en la Topaketak de Tolosa. El 22, la parroquia acogerá el estreno de la obra *Credo-Loinatz*, del compositor Javier Busto.

En diciembre, ofrecerán un

da emanaldiaren ardatz nagusia, eta besteak beste, Bach, Haendel edota Charpentierren obrak kantatuko dituzte.

## Koru ibilbide luzea

Loinatz abesbatza 1939an sortu zuen Pedro Jose Iguainek. Hamarkada batez isilik egon ondoren, 1986an berriro kantuan hasi zen Loinatz abesbatza, Xabier Sarasolaren gidaritzapean. Geroztik bera da zuzendaria.

Hirugarren saria eskuratu zuten Avilesean eta lehen bi sari irabazi zituzten Ejea de Los Caballerosen. 2003an, bigarren saria lortu zuen Noveldako (Alacant) musika erlijiosoaren lehiaketan. Kontzertu

ugari eskaini dituzte Euskal Herrian ez ezik hortik kanpora ere: Katalunian, Kantabrian, Valladoliden, Alacanten, Errioxan, Burgosen, Londonen (Wesminsterreko Katedralean) eta Vatikanoko San Pedroren Basilikan.

Urte askotan abestu dute Donostiako Talde Barrokoarekin batera, eta hainbat obra kantatu izan dituzte: J.S. Bachen *Eguberrietako Oratorioa* eta *Magnificat*, baita Vivaldiren *Gloria*, J.F. Haendelen *Mesias* eta M.A. Charpentierren *Te Deum* ere.

### Info +

<http://loinatzabesbatza.com>



concierto en la parroquia junto al Conjunto Barroco de Donostia, con un programa de música barroca, en el que se interpretarán obras de Bach, Haendel y Charpentier.

## Largo recorrido coral

La coral Loinatz fue fundada en 1939 por Pedro José Iguain. Tras una década de inactividad, en 1986 resurge, como Loinatz abesbatza de la mano de Xabier Sarasola, quien continúa al frente del coro.


Obtuvieron un tercer premio en Avilés y dos primeros premios en Ejea de Los Caballeros. El 2003, obtuvo el segundo premio en el

certamen de música religiosa celebrado en Novelda (Alicante). Han ofrecido numerosos conciertos en Euskal Herria y fuera de ella como Cataluña, Cantabria, Valladolid, Alicante, Rioja, Burgos, Londres (Catedral de Westminster) y Basilica de San Pedro del Vaticano.

Han actuado varios años junto al Conjunto Barroco de Donostia, interpretando el *Oratorio de Navidad* y el *Magnificat* de J. S. Bach, el *Gloria* de Vivaldi y el *Mesias* de J. F. Haendel y el *Te Deum* de M. A. Charpentier.

### Info +

<http://loinatzabesbatza.com>



## Zarautz Txiki, mende laurdena kantuan

**Zarautz Txiki abesbatza bere hogeita bosgarren urteurrena ospatzen ari da egunotan. Urritik abendura bitartean hainbat ospakizun antolatu ditu Jaione Eskudero zuzentzen duen abesbatzak. Urriaren 9an emanaldi berezia eskaini zuten Zarautzen Gipuzkoako beste hainbat haur abesbatzarekin batera.**

Azpeitiko Antxieta haur abesbatzak, Tolosako Hodei Trukek eta Zarauzko Txinpirin eta Zarautz Txiki abesbatzek emanaldi eskaini zuten elkarrekin urriaren 9an, herriko udaletxean.

Azaroan beste bi ospakizun izango ditu Zarautz Txiki abesbatzak: azaroaren 13an egingo dute 25. Urteurreneko ospakizuna, abeslari ohiekin eta Zarautz abesbatzarekin batera. Azaroaren 19an, berriz, Santa Zeziliako kontzertu berezia emango dute; egun horretan CD bat grabatzeko asmoa dute zarautzarrek. Abenduaren 17an eguberrietako kontzertua eskainiko dute.

Gaur egun, 34 gatzetok osatzen dute Zarautz Txiki haur abesbatza. Antxon Sarasuarekin eta Jaione Eskuderoekin egiten dituzte entseguak. Hamabost egunetik behin saioa izaten dute Mertxe Arregi

logopedarekin. Urtero, Eneritz Garmendiak gidatzen duen Txinpirin abesbatzatik talde bat haur abesbatzara pasatzen da.

### Sari eta grabaketak

Zarautz Txiki abesbatza 1986ko urriaren 7an sortu zen Jaione Eskuderoen zuzendaritzapean, Zarautz abesbatzaren harrobi izateko helburuarekin. Hainbat lehiaketatan parte hartu du. 1989. urtean, Kataluniako Cantonigrosek Nazioarteko Lehiaketan 3. saria lortu zuen. Urte berean, 2. saria eskuratu zuen Tolosako Abesbatza Lehiaketan. Lehen saria irabazi du bizpahiru alditan Errenteriako Gabon Abesti Sariketan.

1990ean hamabi euskal abestiz osatutako diskoa kaleratu zuen lehen aldiz. Horrez gain, Txirri, Mirri eta Txiribiton bost diskotan parte hartu du, baita Zarautz eta Orioren artean egin zen Kilometrotako diskoan ere. Azkeneko parte-hartzea *Zorion Perfektua* filmerako izan da.

Euskal Herrikan kanpo, Italiako Milanen eta Cardano al Campon kantatu du, eta baita Kataluniako Cantonigrosen eta Sallenten ere.

### Info +

[www.zarautzabesbatza.com](http://www.zarautzabesbatza.com)

## Zarautz Txiki, cuarto de siglo de canto

**La coral Zarautz Txiki está celebrando estos días su 25º aniversario. La coral que dirige Jaione Eskudero ha organizado varios actos, que se celebrarán entre octubre y diciembre. El 9 de octubre ofrecieron un concierto especial junto a varios coros infantiles de Gipuzkoa.**

Antxieta Haur Abesbatza de Azpeitia, Hodei Truk de Tolosa y las corales Txinpirin y Zarautz Txiki de Zarautz ofrecieron un concierto conjunto el día 9 de octubre en el ayuntamiento local.

La coral Zarautz Txiki ha organizado otros dos actos de celebración para noviembre. El 13 de noviembre celebrarán el 25º aniversario, junto a antiguos coristas y miembros de la coral Zarautz Abesbatza. El 19 de noviembre, con motivo del día de Santa Cecilia, ofrecerán un concierto especial y tienen pensado grabar un CD. El día 17 de diciembre será el concierto de Navidad.

Actualmente, 34 niños y jóvenes participan en la coral Zarautz Txiki. Los ensayos los dirigen Antxon Sarasua y Jaione Eskudero, y cada 15 días tienen cita con la logopeda Mertxe Arregi. Del grupo Txinpirin

que dirige Eneritz Garmendia, cada año un grupo pasa a la coral Zarautz Txiki.

### Premios y grabaciones

Zarautz Txiki Abesbatza fue creado el 7 de octubre de 1986 bajo la batuta de Jaione Eskudero, con el objetivo de ser la cantera del coro de adultos Zarautz abesbatza. Han participado en varios certámenes. El año 1989 consiguieron el tercer premio en el Certamen Internacional de Cantonigròs. Ese mismo año, obtuvieron el segundo premio en el Certamen de Tolosa. Asimismo, varias veces han sido premiados con el primer premio en el Concurso de Villancicos de Errenteria.

En 1990 publicaron un disco compuesto por doce canciones vascas. Además, han participado en cinco discos de Txirri, Mirri y Txiribiton, y también en el disco de Kilometroak celebrado entre Zarautz y Orioren. La última participación ha sido en la película *Zorion Perfektua*.

Fuera de Euskal Herria han cantado en Italia, Milán y Cardano al Campo y, en Cataluña, en Cantonigròs y Sallent.

### Info +

[www.zarautzabesbatza.com](http://www.zarautzabesbatza.com)

## Zumaiatik Jaengo lurretara

**Zumaiako Beheko Plaza Abesbatzak elkartrukea egin zuen uztailean, Jaengo Mancha Real abesbatzarekin. Agustín Zubimendik zuzendutako abesbatzak arrakasta handia izan zuen Andaluzian. Duela urtebete, Mancha Realeko Korral Polifonikoak Zumaiara egin**

**zuen bidaia, eta haiek ere oso zapore ona utzi zuten.**

Uztailaren 2an eskainitako kontzertuan Beheko Plazak hainbat pieza abestu zituen, besteak beste, J.L. Ansorena, Chela-Mastronardi eta Gregorio Solabarrietaren lanak. Era berean, Mancha Realeko abesbatzarekin batera hainbat kanta abestu zituzten: R.

Rodriguezzen *Ojos Traidores* eta Giuseppe de Marziren *Signore delle Cime*. Micaela Martínez herriko alkateak azpimarratu zuenez, "Mancha Real herriarentzat ohorea izan da, Zumaiakoa bezalako talde bat bertan izatea". Era berean, igandeko mezan abestu zuten, *O Salutaris Hostia* eta *Tantum Ergo*.

Zumaiakoa ahots nahasietako abesbatza da, eta 30 lagun joan ziren Jaengo bidaiara, guztiak ere adineko pertsonak. Gainera, herriko bi trikitilari ere izan ziren, Ander eta Joseba, eta haien musikak txundituta utzi zituen andaluziarrak. Mancha Realeko Korral Polifonikoa, berriz, talde gaztea da, 2008. urtean eratu baitzen Udalaren ekimenez. Hori dela eta, bi taldeen arteko elkartrukea oso aberasgarria izan da.

### Saria Beheko Plazari

Jubilatuaren Elkarte Beheko Plaza Abesbatzak Diario Vasco Multimedia izeneko saria jaso du. Sari horien helburua, azken urteetan bereizi diren herritar edo taldeak saritzea da. Era horretan, azken urteetan egindako lanaren ordaina izan da saria. Zumaiako merkatarien elkarteak, Aitziber Odriozolak eman zion saria herriko abesbatzari.

### Info +

<http://hogarzumaia.blogspot.com>



## De Zumaia a tierras jienenses

**La agrupación coral Beheko Plaza de Zumaia realizó en julio un intercambio con la coral jienense Mancha Real. El coro de veteranos dirigido por Agustín Zubimendi cosechó gran éxito en tierras jienenses. Hace un año, la Coral Polifónica de Mancha Real viajó a Zumaia, y también dejó muy buen sabor de boca.**

En el concierto ofrecido el 2 de julio, el coro Beheko Plaza cantó varias obras, entre otras, de J.L. Ansorena, de Chela-Mastronardi y de Gregorio Solabarrieta. Asimismo, tuvieron la ocasión de actuar junto a la agrupación jienense y juntos cantaron: Ojos Traidores de R. Rodríguez, y *Signore delle Cime* de Giuseppe de Marzi. Micaela Martínez, la alcaldesa de la localidad afirmó que «era un

orgullo para Mancha Real el haber contado con la presencia de un coro de la categoría del de Zumaia». También cantaron en la misa del domingo, *O Salutaris Hostia* y *Tantum Ergo*.


De la coral de voces mixtas zumaiarra, viajaron 30 veteranos coristas a Jaén. Asimismo, dos trikitilari de la localidad, Ander y Joseba, participaron en el viaje, y su música gustó mucho.

### Premio a Beheko Plaza

El coro del Hogar del Jubilado Beheko Plaza ha obtenido el premio Diario Vasco Multimedia. Mediante estos galardones se premia a particulares o agrupaciones que han destacado en el último o en anteriores años. Ha sido un premio a su destacada trayectoria. La presidenta de la Asociación de comerciantes de Zumaia, Aitziber Odriozola, entregó el premio a la coral.

### Info +

<http://hogarzumaia.blogspot.com>



## Xatz Eskifaia, 25 urte

**Xatz Eskifaia 2010eko urrian hasi zen hogeita bosgarren urteurrena ospatzen Guadalupeko Santutegian eskainitako kontzertuarekin, Emilio de la Linde lehen zuzendariaren parte-hartzearekin. Datorren azaroaren 12an emango diote amaiera urteurrenari Hondarrribian. Bertan mende laurden honetan abesbatzaren partaide izan diren kantariak eta zuzendari guztiak bilduko**

**dira.**

1985eko irailaren 25ean, Emilio De la Linderen ekimenez, lagun talde bat elkartu zen Hondarrribian eta bilkura hartan Xatz Eskifaia ahots zurien abesbatza sortzeko lehenengo hazia erein zuten. Sortzailea izateaz gain, taldearen lehenengo zuzendaria izan zen Emilio. Hogeita bost urte hauetan abesbatzak beste hainbat zuzendari ospetsu izan ditu: Javier Busto, Maite Oca, Agustín Mendizabal, Alaitz Guridi eta Isabel Mantecon.

Guztien arrastoek eta lorratzek osatu eta bideratu dute taldearen musika ibilbidea.

Gaur egun, Maite Ocaren zuzendaritzapean, errepertorioko obrak ikasteko, bateratzeko eta musikalki finkatzeko prozesua lantzen dute Xatzeko kideek eta prozesu horrekin gozatzan dute. Egitarau bakoitza barne koherentziaz eta erakargarritasunez jantzi nahi izaten dute, emakumeen abesbatzek koro musikari ematen dioten

berezitasuna nabarmendu eta aberasteko helburuarekin.

Xatz Eskifaia hogeita bosgarren urteurrenako ospakizunak 2010eko urrian hasi ziren Guadalupeko Santutegian eskainitako kontzertuarekin, Emilio de la Linde zuzendari gonbidatua izan zelarik. Hondarrribian egin diren hainbat kontzerturen antolaketan parte hartu du abesbatzak, eta horien artean aipatzekoak dira Valentziako A cau d'orella eta Madrilgo VokalArs ahots zurien taldeek eskainitako emanaldiak. Uztailean, Xatzek Kataluniako Capellades herrira bidaia egin zuen; hango Xàldiga abesbatzarekin egindako trukea zela eta, oraingoan hondarribiarrei tokatu zitzaizen haiek bisitatzea.

